ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

| ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA - LANBIDE 2024<br><br>ALDI BATERAKO KONTRATAZIOA | PROGRAMA DE FOMENTO DEL EMPLEO DE LANBIDE 2024<br><br>CONTRATACIÓN TEMPORAL |
|---|---|
| | |
| 1. KONTRATAZIOAREN XEDEA | 1. OBJETO DE LA CONTRATACIÓN: |
| | |
| Oinarri hauen xedea da, Lanbidek 2024rako Tokiko Enplegua Sustatzeko abian jarri duen Programaren baitan, Arkitekto, Arkitekto Tekniko, Ingeniari edo Ingeniari Tekniko bat hautatzeko prozesua arautzea, "UDAL INFORMAZIOA DIGITALIZATZEA (CAD)" izeneko programarako. | Constituye objeto de las presentes bases, dentro del Programa de Fomento de Empleo Local 2024 de LANBIDE, regular el proceso de selección de un Arquitecto/a, Arquitecto/a Técnico/a, Ingeniero/a o Ingeniero/a Técnico/a, para el programa denominado "DIGITALIZACION (CAD) DE LA INFORMACIÓN MUNICIPAL". |
| | |
| Hautatutako pertsonaren kontratua lau (4) hilabetekoa izango da, eta ezaugarri hauek izango ditu: | El contrato de la persona seleccionada será de cuatro (4) meses con las siguientes características: |

| LANPOSTUA<br>PUESTO DE TRABAJO | PROIEKTUA<br>PROYECTO | JARDUNALD.<br>JORNADA | IRAUPENA<br>DURACION | KONTRATU MOTA<br>MODALIDAD CONTRATO |
|---|---|---|---|---|
| Arkiteko edo Arkitekto teknikoa edo herri lanetako ingeniari edo ingenieri teknikoa edo elektrizitateko ingeniari edo ingenieri teknikoa (A2)<br><br>Arquitecto/a ó Arquitecto/a técnico/a ó ingeniero/a ó ingeniero/a técnico/a en obras públicas ó ingeniero/a ó ingeniero/a técnico/a en eléctricidad (A2) | "Udal informazioa digitalizatzea (CAD)"<br><br>"Digitalización (CAD) de la información municipal" | %100<br>100% | 4 hilabete<br>4 meses | Enplegu-politika aktiboen programei lotutako kontratua.<br><br>Contrato vinculado a programas de politicas activas de empleo |

| | |
|---|---|
| 2. KONTRATAZIO BALDINTZAK | 2. CONDICIONES DE CONTRATACIÓN: |
| | |
| Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte: | Los candidatos/as deberán cumplir los siguientes |

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

| | |
|---|---|
| | requisitos: |
| | |
| a) Eskatutako lanpostuaren titulazioa. | a) Titulación del puesto requerido. |
| b) LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa alta hartuta dauden langabeak izatea. | b) Ser personas desempleadas dadas de alta como demandantes de empleo en LANBIDE Servicio Vasco de Empleo. |
| c) Elgoibarren, Soraluzen, Mendaron, Deban edo Mutrikun erroldatuta egotea. | c) Estar empadronado/a en Elgoibar, Soraluze, Mendaro, Deba o Mutriku. |
| d) Euskara C2 maila ziurtatzea (EGA edo baliokidea). | d) Acreditar el nivel C2 de Euskara (EGA o equivalente). |
| e) Ezin izango dira kontratatu goian aipatutako udalek 2023ko ekitaldian, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntza-deialdietan edo 2021-2027 euskal autonomia erkidegoko FSE Plus Programaren esparruan, 2023. ekitaldirako kontratatutako pertsonak. | e) No podrán ser contratadas las personas que hayan sido contratadas por los Ayuntamientos arriba mencionados durante el ejercicio 2023 en las convocatorias de ayudas para acciones locales de promoción de empleo o en el marco del Programa FSE Plus del país vasco 2021-2027, para el ejercicio 2023. |
| | |
| Modu positiboan baloratuko da: | Se valorará positivamente: |
| | |
| a) B gidabaimena izatea | a) Carnet de conducir B. |
| b) CADen maila ertaina izatea. | b) Nivel medio de CAD |
| c) Esperientzia antzerako lanetan. | c) Experiencia en trabajos similares. |
| | |
| **3. ESKABIDEEN AURKEZPENA:** | **3. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES:** |
| | |
| Eskabideak LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuan aurkeztu beharko dira, iragarkian adierazitako egunetan. | Las solicitudes deberán de presentarse en el Servicio Vasco de Empleo LANBIDE, en las fechas indicadas en su anuncio. |
| | |
| **4. HAUTAGAIEN AURRE-HAUTAKETA:** | **4. PRESELECCIÓN DE CANDIDATOS/AS:** |
| LANBIDEk hautagaien aurre-hautaketa egingo du, ezarritako baldintzen arabera. | LANBIDE realizará la preselección de los candidatos/as según las condiciones establecidas. |
| | |
| **5. HAUTAGAIEN AZKEN HAUTAKETA:** | **5. SELECCIÓN FINAL DE CANDIDATOS/AS:** |
| | |

| | |
|---|---|
| Udalak aukeratuko ditu hautagaiak. Horretarako, lehenik eta behin, jasotako eskaerak eskatutako baldintzekin alderatuko ditu, eta, ondoren, egokitasun-probak egingo ditu eta aldez aurretik hautatutako izangaiek egiaztatutako merezimenduak baloratuko ditu. | La selección final de los candidatos/as será realizada por el Ayuntamiento, primeramente, mediante el contraste de las solicitudes recibidas con los requisitos solicitados; y posteriormente, mediante la realización de pruebas de idoneidad y la valoración de los méritos acreditados por los/las aspirantes previamente seleccionados. |
| | |
| 6. EPAIMAHAIA | 6 TRIBUNAL CALIFICADOR: |
| | |
| Hautaketa-prozesuko epaimahaia honela eratuko da: | El Tribunal Calificador del proceso selectivo se constituirá de la siguiente forma: |
| | |
| ➢ Epaimahaiburua: | ➢ Presidente: |
| • Udaleko Hirigintza Saileko teknikari edo arduradun bat. | ▪ Un técnico/a o responsable del departamento municipal de Urbanismo. |
| | |
| ➢ Epaimahaikideak: | ➢ Miembros del Tribunal: |
| • . Hirigintza arloko funtzionario bat. | ▪ Un funcionario/a del área de Urbanismo. |
| | |
| ➢ Idazkaria | ➢ Secretario/a: |
| • Udal funtzionario bat | ▪ Un funcionario municipal |
| | |
| 7. INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK | 7. INFORMACIÓN Y CONSULTAS |
| | |
| Udalak deialdi honetan hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez hautatutako hautagaien zerrenda, azterketa edo elkarrizketen deialdiak, hautaproben emaitzak...) Udalaren webgunean argitaratuko dira (www.elgoibar.eus). | Los acuerdos de esta convocatoria que adopte el Ayuntamiento (notas, listado de candidatos/as preseleccionados/as, convocatorias de exámenes o entrevistas, resultados de las pruebas selectivas…) serán publicadas en la página web del Ayuntamiento (www.elgoibar.eus). |
| | |
| Interesatuek deialdi honi buruz behar duten informazio osagarria nahi izanez gero, hona jo dezakete | Para cualquier información complementaria que las personas interesadas necesiten sobre esta convocatoria pueden dirigirse a: |
| | |
| HAZ (Herritarren Arreta Zerbitzua) | HAZ (Herritarren Arreta Zerbitzua) |

| | |
|---|---|
| Santa Ana kalea 2, 20870 Elgoibar<br>Tel: 943 741050<br>arreta@elgoibar.eus | Santa Ana kalea 2, 20870 Elgoibar<br>Tel: 943 741050<br>arreta@elgoibar.eus |
| | |
| 8. HAUTAKETA ARAUAK | 8. NORMAS DE SELECCIÓN |
| | |
| ➢ Probak | ➢ Pruebas: |
| ▪ Proba praktikoa: 0 eta 40 puntu artean baloratuko da, eta, gutxienez, 20 puntu lortu beharko dira hautapen prozesuan aurrera egiteko. | ▪ Prueba práctica: se valorará de 0 a 40 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 20 puntos para continuar en el proceso selectivo. |
| • Proba honetan, lortu nahi den lanpostuari dagozkion zereginak egin beharko dira. | ▪ La prueba consistirá en realizar tareas propias del puesto al que se opta |
| | |
| ➢ Curriculumari buruzko elkarrizketa: 0 eta 10 puntu artean baloratuko da. | ➢ Entrevista curricular: se valorará de 0 a 10 puntos. |
| ▪ Elkarrizketa proba praktikoa gainditu duten hautagaien prestakuntza akademikoari eta esperientzia profesionalari buruzkoa izango da. | ▪ La entrevista versará sobre la formación académica y la experiencia profesional de los/as candidatos/as que hayan superado la prueba práctica. |
| | |
| Probak egiteko egunak eta orduak zuzenean jakinaraziko zaizkie hautatutako eskatzaileei. | Las fechas y horas de las pruebas se comunicarán directamente a los/as solicitantes seleccionados/as. |
| | |
| Elgoibar, 2024ko irailaren 24a | Elgoibar, a 24 de septiembre de 2024 |